

KONTROL MOZIOA

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEKIN ESKU HARTZEKO PROTOKOLOA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2017ko azaroan Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

2015. urtean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloa onartzera eraman aurreko azken errebisioa gauzatzen ari zen eta lanketa egokia egiteko zenbait dekalogo ere prestatu ziren.

Bi urteren bueltan, 2017ko iraileko udalbatzarrean aho batez bi puntu onartu ziren:

1.-Donostiako Berdintasunerako Kontseilu Sektorialarekin, Emakumeen Etxeko Indarkeria Taldearekin eta Donostiako mugimendu feministarekin Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloaren aurkezpena urrian egin eta eragileei egokitutako denbora tartean ekarpenak jasotzeko eta kontrasteak egiteko aukera bermatzea.

2.-Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloaren aplikazioa bermatzea; hala nola, premia zehatzei loturiko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak ahalduntzea indartuko duen arreta eskaintzea eta eraso sexisten kasuetan Udaltzatzen jarduera egokia bermatzea.

Halaber, urriaren 20an Donostiako Berdintasunerako Kontseilu Sektorialean parte hartzen duten eragileei emailaz protokoloaren zirriborroa bidali eta azaroaren 6ra bitarteko epea eman zen ekarpenak egiteko. Modu berean, Gizarte Ekintza Kontseiluko kideak parte egiteko eskaera egin zen eta azaroaren 6ra arte ez zitzaien informazioa helarazi.

Horiek horrela, azaroaren 9an, Donostiako Berdintasunerako eta Gizarte Ekintzako kontseiluko kideok protokoloa lantzeko bilera batera deitu gintuzten. Bertan, protokoloa eta aurkeztutako zuzenketak azaldu ziren arren, iraileko kontrol mozioa ez da bete, protokoloan jaso beharreko hainbat lege eta zerbitzu ez dira jaso eta beharrezko kontrasteak ez dira egin. Batzordean, zinegotzi-ordezkariek ez zuen gai hauei buruz inongo azalpenik eman.

Hori dela-eta haxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari “Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa”-ri dagokionez 2017ko iraileko udalbatzarrean aho batez onartutako mozioa bete dezala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari “Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa” parte izango diren administrazioen (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) eta Donostiako eragileen babes bilatu eta lortu dezala.
- 3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari “Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa”-n Alkatetzaren eta Bozeramaileen Batzordeko funtzioak jaso ditzala, hirian gertatzen diren eraso matxistak salatu eta gaitzespen osoa egiteari begira.
- 4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari “Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa” jardun gida irekia izan dadila, onartzen diren lege eta neurriak azkar egokitu daitezten.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia